BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1207

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 12koa, Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariarena (Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzako titularraren kargua bete gabe baitago). Honen bidez, onartzen da zenbait kidegotan lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsa osatzen dutenen behin-behineko zerrenda; hona hemen kidegoak: Justizia Administrazioko auzitegiko medikuen kidegoa, prozesu eta administrazio kudeaketaren kidegoa, prozesu eta administrazio tramitazioaren kidegoa eta laguntza judizialaren kidegoa.

2012ko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez, auzitegiko medikuen kidegoko, prozesu eta administrazio kudeaketaren kidegoko, prozesu eta administrazio tramitazioaren kidegoko eta laguntza judizialaren kidegoko lanpostuak betetzeko lan-poltsak ireki ziren, bertan dauden guztien datuak eguneratzeko. Hala egin zen, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduak emandako eskumenak baliatuz; Justizia Administrazioaren auzitegiko medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetan lanpostuak betetzeko, bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatzeari buruzkoa da aipatutako agindu hori.

Lan-poltsa horietan daudenen behin-behineko zerrenda prestatu delarik, 2010eko irailaren 16ko Aginduko 5. artikuluan eta 2012ko uztailaren 19ko Ebazpenean ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Justizia Administrazioko auzitegiko medikuen kidegoko, prozesu eta administrazio kudeaketaren kidegoko, prozesu eta administrazio tramitazioaren kidegoko eta laguntza judizialaren kidegoko bitarteko funtzionarioen lan-poltsak osatzen dituztenen behin-behineko zerrenda onartzea, eta zerrenda hori Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kudeaketa unitate teknikoetako (EAT) iragarki tauletan ikusgai jartzeko agintzea, bai eta www.justizia.net web-orrian eta Justiziako intraneten ere.

2.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek hamar egun naturaleko epea izango dute, behin-behineko zerrendako datuei buruz erreklamazioren bat egiteko –behar bezala dokumentaturik–, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari.

3.– Lan-poltsak antolatu ahal izateko, eta 2010eko irailaren 16ko Aginduko 4.4 artikuluan ezarritakoa betez, berdinketak azkeneko lan-eskaintza publikoko alfabeto-hurrenkerari jarraituz ebatziko dira, «U» letratik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 12a.

[Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzako buruaren lanpostua bete gabe baitago; abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria a)].

Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaria,
JON ARTURO URIARTE UNZALU.